BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

EUSKO LEGEBILTZARRAREN ADMINISTRAZIOAN 2024-2025 URTEETARAKO KUDEAKETA PLANAREN GARAPENERAKO LAGUNTZA TEKNIKOA

1. LEHIAKETAREN XEDEA

Lehiaketa honen xedea da Aholkularitza zerbitzua kontratatzea, Eusko Legebiltzarreko Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2023-2027 Plangintza Estrategikoari dagokion 2024-2025 urteetarako Kudeaketa Plana garatzen laguntzeko.

2. IRAUPENA ETA PREZIOA

Aholkularitza-zerbitzu hau 2024ko urritik 2025eko ekainera bitartean eskainiko da. Zerbitzuagatiko gehienezko prezioa **31.600 eurokoa** izango da, gehi **BEZa (%21, 8.400 euro)**.

3. EZAUGARRI TEKNIKOAK

3.1. Testuingurua

Hona hemen testuingurua zehazten duten elementuak:

- 2023-2027 Plan Estrategikoaren lehen urtean dago Eusko Legebiltzarreko Administrazioa. Plana definituta dago eta dagoeneko onartu du Eusko Legebiltzarreko Administrazioko Talde Eragileak (Plan Estrategikoaren jarraipenerako egungo organo gorena) eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiak. HPSren erantzun positiboa jaso du, indarguneak eta zer hobetuak azpimarratuta.
- 2024-2025 urteetarako Kudeaketa Plana ere diseinatuta dago eta Talde Eragileak onartu zuen 2024ko martxoaren 22an.
- Bestalde, apirilaren erdialdean hasia da ezartzen Eusko Legebiltzarrean Administrazio Elektronikoa. Honek, dudarik gabe, aldaketak ekarriko ditu lehen egunetik, lan egiteko moduan.

3.2. Helburu orokorrak

- Aholkularitza zerbitzua kontratatzea, Eusko Legebiltzarreko Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2023-2027 Plangintza Estrategikoari dagokion 2024-2025 urteetarako Kudeaketa Plana garatzeko, Kudeaketa plan honen ardatz diren bi elementu nagusi hauek kontuan harturik:
    - Euskararen Normalizazioaren kudeaketa integratua. Alegia, euskararen kudeaketa orokorra Legebiltzarreko kudeaketa orokorrean txertatzea.
    - Eta hau guztia lidergo partekatuaren bidez garatzea

3.3. Helburu zehatzak

- Lidergo partekatua zehaztu: Eusko Legebiltzarrean Hizkuntza Normalizazioan eraman behar den lidergotza-rola definitu eta partekatu. Ildo honetan, liderren hausnarketa erraztu eta bideratu zer lidergo linguistiko hartu beharko litzatekeen planaren betetze-maila egokia izan dadin.
- Kudeaketa arloko mikroplanak zuzendaritzaka definitzen lagundu, mikroplanen jostunen sarea osatuz
- Trebakuntza eredu berria definitzen lagundu, orain arteko trebakuntza-esperientzian eta Elebitasuna eta Kalitatea uztartzen duen hasitako hausnarketan oinarrituta.
- Eusko Legebiltzarreko langileen hizkuntzekiko alor emozionala landu, bizipenak, sentimenduak eta usteak kontuan hartuta. Euskararen aldeko portaerak aktibatzea eta langileen euskararekiko atxikimendua areagotzea.
- Normalizazioa bideratzeko orain arte abian diren barne-egiturak berrikusi, beharrezkoak liratekeen hobekuntzak proposatzea.
- Hizkuntza Irizpideak zabaldu eta lantzea.
- Jaurlaritzak onartu berri duen Hizkuntza Normalizazioa arautzen duen Dekretu berria egokitzea Eusko Legebiltzarraren egoera eta izaerari.

3.4. Aholkularitza zerbitzuaren ezaugarriak

- Lanari ekiterakoan, abiapuntua izango da orain arte egindako lana:
    - 2023-2027 Plan Estrategikoa (Eusko Legebiltzarreko Administrazioko IV. Plangintzaldia)
    - 2024-2025 Kudeaketa Plana

- 2023ko udaberrian egindako Bikain Ziurtagiria eskuratzeko simulazio-ebaluazioa
- 2024an onartutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak
- Hizkuntzaren Normalizazioa kudeatzeko eta garatzeko orain arteko egitura: Talde Eragilea, Aholku Batzordea eta Gogoeta Taldea.

- Lehentasunen araberako lan-kronograma zehaztu eta onartu beharko da.
- Lan-kronograma horren arabera, prozesua garatu beharko da 2024ko urritik 2025eko ekainera bitartean.

3.5. Proposatzen den kudeatzeko metodologia

- Koordinazio-talde bat egongo da honela osatua:
  - Hizkuntza-Normalizazio teknikaria
  - Gogoeta taldeko kide bat, gutxienez
  - Aholkularitza enpresako teknikari bat

Koordinazio-lanak Eusko Legebiltzarrak egingo lituzke.

- Funtzioak:
  - 2024-25 urteetarako Kudeaketa Planaren behin betiko zehaztapena egitea
  - Plan honen garapenean, jarraipena egitea eta laguntza ematea.
  - Lanerako urratsak eta lan-kronograma zehaztea
  - Aurreikusitako lan-ildoak garatzeko beharrezkoa den informazioa eskuratzea
  - Aurreikusitako lan-ildoei etengabeko segimendua egitea eta sor daitezkeen arazoen aurrean irtenbideak aurkitzea
  - Aholku Batzordearekin, Gogoeta Taldearekin eta Talde Eragilearekin koordinazioan aritzea.
  - Egiten den lana ezagutarazteko komunikazio-ekintzak zehaztea.

- Funtzionamendua
  - Aholkularitza enpresako teknikaria, gutxienez, astean behin etorriko da Eusko Legebiltzarrera. Koordinazio-taldeko beste kideekin lotura zuzena izango du eta hiruren artean adostuko dituzte proposatutako lanak.
  - Aholku Batzordearekin, Gogoeta Taldearekin eta Talde Eragilearekin ere koordinatuko da
  - Bilera presentzialak egingo dira Legebiltzarrean, baina telematikoki ere egiteko aukera bermatuta egongo da astean zehar behar den guztietan.

- Presentzia-orduez gain, aholkularitza-enpresako bulegotik beharrezkoak direnak kudeatzeko eta aholkularitza eskaintzeko orduak izango dira. Egitasmoaren garapenean zehar, modu iraunkorrean izango du hartu-emana partehartzaile guztiekin posta elektronikoaren bidez, telefonoz …

4. GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du eta berdintasunari buruzko legediak ezarritako betekizunak beteko ditu.

5. AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMENA

Aurkeztuko den proposamenak ezinbestean jasoko ditu ondoko elementuak:

5.1. 2024ko irailetik 2025eko ekainera bitartean landuko diren arloak helburu orokorrak eta zehatzak betetzeko:

- Lidergo partekatua: azken definizioa eta abian jartzea
- 2024-25 Kudeaketa Planaren gauzatzea zuzendaritza bakoitzeko mikroplanen bidez.
- Onartuta dauden Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen hedapen-lana eta jarraipenerako sistemaren definizioa
- Langileen alor emozionala lantzeko metodologia ezarrri
- Jaurlaritzak onartu berri duen Hizkuntza Normalizazioa arautzen duen dekretu berriaren egokitzapena aztertu Eusko Legebiltzarrean bertako errealitatea kontuan hartuta.

5.2. Hau guztia lantzeko metodologia ongi xehetua eta planteatzen den lan osorako kronograma.

6. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

Hauexek dira erabiliko diren irizpideak:

6. 1. Formula bidez baloratzeko elementu finkoak:

6.1.1. Eskaintza ekonomikoa, 55 puntu. Puntu hauek banatzeko honako formula hau erabiliko da:

$$\frac{55 \text{ x aurkeztutako eskaintza merkeena}}{\text{norbere eskaintza ekonomikoa}}$$

6.2. Eskaintza teknikoak:

Proposatutako lan-metodologia, lanaren fase bakoitza egiaztatzeko jarraibideak eta egin beharreko lanen mekanismoa eta sistematika: 45 puntu gehienez. Bereziki baloratuko dira:

6.2.1. Langileen alor emozionalaren lanketarako proposamen metodologikoa (10 puntu)

6.2.2. Lidergo partekatuaren azken diseinua: abian jartzeko eta garatzeko proposamen metodologikoa (10 puntu)

6.2.3. Mikroplanak kudeatzeko metodologia, idazki honen hasieran aipatutako testuinguru osoa kontuan hartuko duena. (15 puntu)

6.2.4. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen hedapen-lana egiteko prozedura eta metodologia (5 puntu)

6.2.5. Bestelako hobekuntzak eta ekarpenak (5 puntu)

.